

Business English Certificates (BEC) gaiari buruzko hitzaldia Bidasoako Campusean

2008/05/21

Pasa den asteazkenean, maiatzaren 14an, Bidasoako Campuseko Enpresa Zientzien Diplomaturako lehenengo eta bigarren mailako ikaleek, Business English Certificate (BEC) hitzaldian parte hartu zuten.

Ekitaldi hau, hizkuntza departamentuak bultzatutako izan zen eta bere helburua, ikasleek, enpresetatik hizkuntza arloan eskatzen diren tituluen berri jaso eta baita ere Europa mailan dagoen hizkuntza mailen sailkapena (A1, A2, B1, B2, C1, C2) ezagutzea zen.

Aukezpena, Lacunzako Business arloko arduraduna den James Maguirek egin zuen.

James Maguirek, esperientzia zabala dauka pertsona aukeraketa prozesuetan elkarrizketak ingelesez eginez. Hortaz gain, Arthur Andersen Consulting enpresan lan egin du pertsona aukeraketetan eta egun, arlo berean lankidetzak egiten ditu erakunde honekin.

Hitzaldia, egun, enpresek hizkuntzen ezagutza eta hizkuntza tituluen arloan eskatzen dutenaren ikuspuntutik azaldu zen.

